

LANDA SOZIOLOGIA

Jateko ohituren, hazien eta turismoaren gainean pil-pilean dauden ikerketak

 **JENDARTEA** / Maider Iantzi Goienetxe

Bilbon egin den hamargarren Soziologia eta Zientzia Politikoaren Euskal Kongresuan nazioarteko ikertzaileek beren azken lanak plazaratu dituzte. Bi egun bete-bete izan dira, 300 bat parte-hartzaile eta 270 komunikazioekin. Zurrumbilo horretan landari buruzko taldea aukeratu dugu eta lau ikerketa hagitz ezberdinen berri jaso dugu.

Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolara ailegatu gara, San Mames Barriaren ondoan. Harrera gunea lasai dago, oraindik 9.00ak baino ez dira-eta. Pasilloetan barna atez ate bilatu dugu interesatzen zaigun taldea: “Landa soziologia eta eli-

kadura sistema”. F. Xavier Medina kataluniarra eta Marta Barba euskalduna izan dira iristen lehenak. Geroago etorri dira Beatriz Izquierdo eta Guadalupe Ramos, taldeko arduradunak eta EHUrekin lotuak, nahiz eta nomaden gisa ibili. Horiek izanen dira lau hizlariak... Baita entzuleak eta eztabaidetan parte hartuko dutenak

Kongresuaren harrera lekua, Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan. Irailaren 3an eta 4an egin zen.
Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

ere. Publikoa espero genuen eta ez egoteak harritu gaitu, baina egia da komunikazio pila bat daudela. Hala hizlariak lasaiago daude eta mahaiaik hurbilduta giro goxoa lortu dugu.

KRISIAREN ERAGINA ELIKADURAN

Medina hasi da Alicia Aguilarrekin batera egin duen ikerlana aurkezten: “Krisiaren pertzepzioa eta elikadura ohiturak: azterketa kualitatibo bat Katalunian”. 2008tik bizi dugun krisi sozio-ekonomikoak elikadura izugarri aldatu izango zuela susmatzen zuten, baina zalantza bat zuten: alderdi materialei soilik eragiten die ala dimentsio soziokultural zabalago bat ere badu bizi estiloei era integrala-goan eragiten diena? Galdera horri eta bertze batzuei erantzuteko landa lana egin zuten 2012ko irailetik 2014ko urrira, familia egitura ezberdinekin elkarriketa sako-



nak izanez Katalunia osoan. Kri-
siak beren jateko ohiturak nola
aldatu dituen azaldu dute herri-
tarrek, baita derrigortutako al-
daketei aurre egiteko zein estra-
tegia martxan jarri dituzten ere.

2012tik aitzinera ikusten hasi
ziren prezioa lehen faktorea izat-
en hasi dela erosteko orduan.
2013tik kontsumoa zertxobait
suspertzen hasi da eta kalitatea-
ri garrantzia ematen zaio berri-
ro.

45 lagunekin bildu ziren ba-
koitzaren etxean, 30 emakume-
rekin eta 15 gizonekin. 21 eta 60
urte arteko jendea elkarriketa-
tu zuten. Erdiak gizonak eta er-
diak emakumeak izatea nahi zu-
ten, baina gizon batzuekin
solasean hasi eta «hau nire
emazteak edo bikoteak kontatu-
ko dizu hobeki» erantzuten zie-
ten. Hau helduekin soilik ez,
gazteekin ere gertatu zaie, etxe-
ko otorduen pisua emakumez-
koek daramaten seinale.

Bakarrik bizi direnek, bikote
heterosexual zein homosexua-
lek, seme-alabak dituztenek eta
ez dituztenek osatu dute azter-
ketaren lagina. Zaila da estatus
sozioekonomiko zehatza finka-
tzea, baina klase ertaineko eta
ertain-baxuko herritarrekin
egotea bilatu dute (urtean
60.000 euro baino gutxiago ira-
bazten dutenekin).

ARDOA ETA ZERBEZA, GORA

Eta zer diote azterketaren emai-
tzek? Lehenik eta behin, jateko
ohituren aldaketek hainbat
arrazoi dituztela, nahiz eta ez
dagoen zalantzarik erosteko gai-
tasunaren jaitsiera orokorraz.
Bigarrenik, ondorio psikologiko-
ak sumatu dituzte elkarriketa-
tu guztietan: etsipena, segurtas-
unik eza eta austeritate
handiagoa, berdin du krisiak zu-
zenean erasaten dituen ala ez.
«Murrizketak egiteko azkeneko
gauza janaria da –adierazi du el-
karriketatatu batek–. Eta umeena
berdin mantentzen dugu».

Komertzio txikiak utzi eta su-
permerkatu handietara jotzen
du jendeak, eta marka zuriak
aukeratzen ditu. Kontzienteago
da jendarte eta, adibidez, kont-
sumo kooperatibetan erosten
du, gutxiago botatzen du eta so-



Kirolak landa garapenean duen tokia ikertzen hasi dira.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

lidarioagoa da (nahiz eta, ikerke-
tan ikusi dutenez, elkartasun
hori gehiago den hitzezkoa).

Fruta, barazki, arrain fresko,
itsaski eta haragi kontsumoa
jaitsi da (prezioagatik izan dai-
teke), baina elikagai merkeago-
ek ere behera egin dute, adibi-
dez ogiak eta lekaleek. Aldiz,
kontsumo ekologikoa igo egin
da, baita, nabarmen, ardo eta
zerbezarena ere. Eta gehien
erosten diren ardoak jatorri
izendapenekoak dira. Gutxiago
ateratzen da jatetxeetara jatera;
horren orde, gurasoen etxera
joaten dira aunitz.

EMOZIOARI EUSTEN

Estatistiketan aldaketak azka-
rrago gertatzen dira maila per-
sonalean baino. Inork ez du au-
rrera goazenik erraten. «Jendea
gaizki dago eta hori ez da alda-
tzen. Emozioari eusten segitzen
dugu», azaldu du F. Xavier Medi-
nak. «Datu ekonomiko onak ate-
ratzen dira eskala handian, bai-
na hori ez da sumatzen behean»,
dio bertze elkarriketa-
tatu batek.

Ikertzaileak aitortu du emai-
tzak uste baino antzekoagoak
izan direla, hau da, egoera ez-
berdinak jasotzen ahalegindu
dira baina konturatu dira denek
antzeko estrategiak erabiltzen
dituztela egokitzeko. Bestalde,
dieta ez da aldatzen krisia egon
arren. Dieta bera mantentzeko
marka zurietara edo gurasoen
etxera jotzen da (marka zuriak
lehen ere kontsumitzen ziren,
baina orain kontzienteago).

HAZIEN BORROKA

Bere lana azaltzen bigarren
Marta Barba EHUKo ikertzailea
izanean da, “Landatutako bio-
niztasunaren inguruko diskur-
tsoen analisi feminista batetik
abiatuta nekazaritza eremu eta
elikadura sistemaren inguruko
ikasketek ekarpena” izenburua-
rekin. Honako galderetatik abia-
tu da: zeintzuk dira bertako ha-
zien eta bioaniztasunaren
gainean eraikitzen ari diren dis-
kurtsuak? Zein paper egozten
zaizkie emakumeei? Eta zein pa-
per hartzen ari dira benetan?

Ikerketa bete-betean dago gaz-
tea, tesia egiten. Agertu duenez,



orain arte egindako bideak gaur egun haziak interes aunitzen jomugan izanik horien gaineko borroka dagoela baieztatzen ari zara. «Borroka hori hazien esanahi eta erabileraren ingurukoa da, baita horien inguruan sortzen diren jakintzen ingurukoa eta horien erabileran emakumezkoek, gizonezkoek, nekazarien elkarrekin, nazioarteko antolakundeek eta estatuek jokatzeko duten paperari buruzkoa ere».

Barbaren hitzetan, beraz, haziak esanahi sozial eta kulturalak bildu eta sortzen dituzten gorputzak dira. «Zehazki, generoak zeharkatutako esanahiak bildu eta generoa eraldatzen duten esanahiak sortzen dituzten gorputzak».

Bertzeak bertze, hazien eta emakumeen artean lotura «naturalik» ez dagoela eta haziak zaintzeko lanak partekatua izan behar duela aldarrikatu du. «Nahi gabe, emakumeek hitz egitean etxeko gaiez hitz egiten dugu, ugalketaz, zaintzaz...». Baina, ziurtatu duenez, haziaren kontzeptuak dikotomiak puskatzeko potentziala du, haziak eli-

kagaiak direlako baina baita produzitzeko bitartekoak ere.

Euskal Herrian auzi honi buruzko ikerketa gutxi egin direnez, komunikazio honek bertze helburu bat ere badu: etorkizunerako ikerketa lerroak identifikatzea eta irekitzea.

PRODUKTU TURISTIKO BERRIAK

Hurrengo lanak, Beatriz Izquierdok eta Guadalupe Ramosek Patricia Campelorekin batera osatu dutenak, landa turismoaren aldaketak ditu aztergai. Zehazki, landa garapen planean sartzen den Leader egitasmo europarraren alderdi ukiezina ikertu nahi izan dute, hori baita «ezagutzen ez duguna eta garrantzitsuena dena».

Leaderren oinarria landa turismoa da, alegia, diru publiko hori landa turismora bideratu da, proiektuen zati bat finantzatu. Baina zein turismo motaz ari gara? Ikertzaileen iritziz, ez da turismo bera 1990ekoak, 2000koak eta oraingoak.

«Gaur egun kalitatearen aldeko apustua egiten da, sarri inbertsio handiekin, baita landa hotelen eta gastronomiaren al-

dekoa ere. Eta sustapena lantzen da. Landa turismoa hain indartsua izatea ez da kasualitatea», baieztatu dute. Dibertsifikaziorantz doa eta produktu turistiko berriak sortzen ari dira espazio eta erabilera berriei lotuta.

Galdera ikurrak ere jarri dituzte: landa garapenaren motorra izan behar du turismoak? (betiko eztabaida) Herriarrek eskatutako zerbait da, ala goitik, instituzioetatik dator?

Proiektuak aztertzeaz gain, sakoneko hogeik elkarriketa egin dituzte hainbat eragilarekin, tartean landa garapeneko agentziak eta nekazaritza sektorea-

Marta Barba soziologoa, hazien inguruko bere lana azaltzen, «Landa soziologia eta elikadura sistema» taldean. Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

ren onuradunak. Euskal Herriko landa eremuetan turismoaren aldeko apustu handia ikusi dute. Aunitz inbertitzen da luxuzko hotel, ostatu eta jatetxeetan.

BASERRITARRAK, BAZTERTUTA

Elkarrizketatuek azalduko duten ideia orokorra da inbertsioak gehiegizkoak direla. Maiz hauek emanda datoz eta agentziei arazoak sortzen dizkie. Adibidez, ekintza batzuk ez dira ingurune-
ra egokitzen.

Eta baserritarrek zer diote? Paradoxa azaltzen dute: «Pena ematen dit baserrien egoerak. Ibilbide zoragarria egin dugu, baina zer erakusten dugu? Erortzen ari diren baserriak?», dio batek. «Baserriarrik gabe ez dago Ordiziako feriarrik», bertzeak. Estrategiatik baztertuta sentitzen dira, gero eta gehiago.

Inbertsioek ongi funtzionatu duten lekuen bi adibide jarri dituzte: Urola Kosta eta Arabako Errioxa (azken honetan, inbertitzailea bertakoa izatea garrantzitsua da).

KIROLA ETA LANDA GARAPENA

Beatriz Izquierdok aurkezpen bikoitza eginen du, Juan Aldazekin batera kirolak landa garapenean duen paperari ikertzen ari baita EAE mailan. Gaiari buruz hagitz gutxi idatzi da eta landa garapen politiketan kirola ez da faktore garrantzitsua gisa agertzen. Transbertsala da kirola. Hortaz, zera galdetzen dute: (galdutako) aukera da?

Jendartean «mundu guztia» kirola egitera atera dela dirudie-la aipatu du Izquierdok, eta mitifikatu ere egiten dela.

1990eko hamarkadan pilotaleku ugari berri ziren, beren sinbologiagatik, baita kiroldegia ere. Gero abentura kirolen alde egin zen eta senderismoa eta golfa sustatu ziren. Orain BTT ibilbideak ari dira ugartzen, inguru naturala.

Idea eta gogoeta batzuk plazaratu ditu ikerlariak: kirolaren potentzialitate handia; zergatik ez duten instituzioek apustu argirik egin; zer saltzen den, turismoa ala kirola... Agindu duenez, aunitzez gehiago izan behar du turismoa aurreratzen dutenean.

«Nahi gabe, emakumeek hitz egitean etxeko gaiez hitz egiten dugu, ugalketaz, zaintzaz...». Baina haziak dikotomiak puska ditzake, elikagaiak gain ekoizteko bitartekoa delako

«Gaur egun kalitatearen aldeko apustua egiten da, sarri inbertsio handiekin, baita landa hotelen eta gastronomiaren aldekoa ere. Landa turismoa indartsua izatea ez da kasualitatea»